

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

441/2016 Foru Agindua, azaroaren 18koa, baimentzen duena Fernando Alonso Puente izendatzea, aldi batez bete dezan Alegría-Dulantziko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua, azaroaren 14tik titularra berriz itzuli arte

Alegría-Dulantziko Udalak jakinarazi dio atal honi ez daukala nor jardun idazkari-kontuhartzaile lanpostuan, zeren lanpostuaren titularra, María Jesús Calvo Cabezón, zerbitzurako aldi baterako ezintasun egoeran baitago, eta, beraz, norbait izendatu beharra baitauki aldi batez lanpostu hori betetzeko; hain zuzen ere, 2016ko azaroaren 14tik lanpostuaren titularra itzuli arte.

Horregatik guztiagatik, udal horretan administrari laguntzaile ari den Fernando Alonso Puente jauna proposatzen da aldi batez izendatzea epe horretarako.

Bat etorri gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren 33. artikulua xedatutakoarekin (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, beste honek eman zion idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua—.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa bete eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskudantziak baliatuz (52/1992 Foru Araua), horren bertutez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Fernando Alonso Puente aldi batez izendatzea Alegría-Dulantziko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko 2016ko azaroaren 14tik aurrera, plazaren titularra den pertsona zerbitzurako aldi baterako ezintasunagatik mediku bajaz egongo den aldirako.

Bigarrena. Izendapenak titularra Alegría-Dulantziko Udaleko idazkari-kontuhartzailearen lanpostura arteko indarra izango du.

Hirugarrena. Izendapen horrek atzerako eragina izatea 2016ko azaroaren 14tik aurrera, orduan hasi baitzen Fernando Alonso Puente lehen aipatutako lanpostu hori betetzen.

Laugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Alegría-Dulantziko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 18a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreken zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ